

**JOXE MARI UBARRETXENA, AGUSTIN URREAGA, PEPO ALTUNA ETA ISIDRO LIZARRETA**  
**ERGOBIKO FESTEN ANTOLATZAILEAK**

## “Ergobin 100 pertsona bizi gara eta horrelako festak edukitzea meritua dela iruditzen zaigu”

■ Gaur eguerdiko 12:00etan hasiko dira Ergobiko festak kupela jeistearekin ■ Astearte arte izango dira jaiak eta azkeneko eguna auzokoenean eguna izaten da ■ Antolatzaileen esanetan, idi probak, sagardo lehiaketa eta haurrentzako jaialdiak dira ekitaldi arrakastatsuenak.

GAUR hasi eta asteartera arte izango dira Ergobiko festak. Adin guztietako jendeak ondo pasatzeko moduko programa prestatu dute aurten ere: idi probak, sagardo lehiaketa, berbena, poteoa, haurrentzako jaialdiak, eta abar. Giroari begiratuta antolatzaileek diote orain dela 20 bat urte zegoen giroarekin ezin dela konparatu, baina, hala ere, giro ona egoten dela festetan. “Ergobi bezalako auzo batean horrelako festak edukitzeak meritua da” dio Jose Mari Ubarretxenak.

### ‘San Kupeltxo’ jaiak

Eguerdiko 12:00etan hasiko dira festak Ergobin. Azkeneko urteetan egin duten bezala, kioskoraino kable bat bota eta handik kupela jaitsiko dute Ergobiko himnoa abesten duten bitartean. “Ergobiko festek ez dute santurik eta horregatik guk San Kupeltxo jaiak deitzten diegu hemengo festei” dio Agustin Urreagak.

Arratsaldeko 16:00etan txirrindulari proba izango da eta auzoko laguna zen Bernardo Arzallus gogoratzeko lasterketa honi bere izena jarri diote. Bernardo Arzallusek eraman zuen txirrindularitza Ergobira eta, horretaz gain, auzoari gauza asko eman dizkion gizonera dela diote bere lagunek, bai lanean eta bai umorean.

Segidan Incansables txarangak alaituko ditu Ergobiko bazterrak, eta txarangarekin batera nahi dutenak eliza aldera abiatuko dira. Arratsaldeko 19:00etan Meza izango da



**Ezkerretik hasita, Jose Mari Ubarretxena, Agustin Urreaga, Pepo Altuna eta Isidro Lizarreta.**

Astigarragako parrokan, auzoko hildakoen alde. Gauean M-N Ezten taldearen berbenan dantza egiteko aukera izango da, eta 24:00etan zezen suzkoa agertuko da jendeak korrika pixka bat egin dezan.

**Sona gehienetan dute ekintzak** Antolatzaileen hitzetan, sona gehienetan dute ekintzak, idi proba, sagardo lehiaketa eta haurrentzako jaialdiak dira. Sagardo lehiaketa igandean goizeko 11:30etan izango da eta badu berezitasun bat: juradoari eta dastatzaileei (biltzen

direnak) probatzeko sagardo bera emango zaie eta saria jasoko du epaileek zein sagardo sarituko duen asmatzen duen dastatzaileak.

Haurrei zuzendutako jaialdia igandean arratsaldeko 17:00etan egingo da, eta parte hartzen duten ume guztiak jasotzen dituzte sariak. Sona haundiak lortu duena astearte gauean 24:00etan egiten duten jaialdia da. Aurtengoari *Marraski Bizidunen Jaialdia* izena jarri diote eta auzokoak aterako dira marrazki bizidunetako pertsonaiak antzezen: Sin

Chan, Doraemon, Simpson familia, eta abar. “Azken batean katxondea izaten da eta gainera parte hartzen duten artistak 1 eta 62 urte bitartekoak izaten dira” dio Agustin Urreagak.

Idi-probaren inguruan ere jende asko biltzen omen da. Bi txandatan egiten da, aurreneko astelehenean izango da eta bestea astearte, biak ere eguerdiko 12:00etan. Parte hartuko dute, Aiako Izetak, Lasarteko Telleriak, Igeldoko Olasagastik eta Astigarragako Petritegik.

### EGITARAUA

#### GAUR ERGOBIN

**12:00** Auzoko gazteek jotako txalaparta eta Ergobiko himnoaz festen hasiera emango zaie. Segidan, kupe-laren jaitsiera izango da.

**16:30** Txirrindulari-lasterketa. Nazio mailako gazteentzako XXXIX. Ergobiko Sari Handia. Bernardo Arzallus I. Memoriala.

**18:00** Sagasta jauna aurrean duelarik Incansables txarangakoek Ergobiko bazterrak alaituko ditu. Ondoren, nahi duenarekin batera, Astigarragako elizazarantz abiatuko da.

**19:00** Auzoko hildakoen aldeko meza Astigarragako parrokan.

**00:00** Goizaldeko 04:00ak arte M-N Ezten taldearekin berbena. Atsedernaldian Incansables txarangak joko du.

**00:30** Zezen suzkoa.

Asteartea ergobiarrentzako eguna izaten da eta eguerdian herri bazkaria izaten dute, 14:30etan Ergobiko plazan. Festak bukatzean *Ergobiko pobre de mi* abesten dute eta oso giro ona egoten da, azkeneko eguna izanda aprobetxatzenten saiatzen direlako.

#### Lehen jende gehiago

75 urte inguru dira Ergobin festak egiten direla eta lehenagoko festak gogoratz antolatzaileek diote “garai batean Ergobiko festetan izaten zen jende pilarekin kamioiak eta kotxeak pasa ezinik ibiltzen ziren”. □

**Telemar**

Itxastele, S.L.



**RENOVE PLANA**

Egundoko ESKAINZAK  
Etxe tresnatzen cta  
mugikorretan.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60

### HERNANI HIZKUNTZAK

Gure Ingelesetxea

Zorionak! Aitziber (bikain), Gari, Ainara, Mikel (bikain), Edurne, Harri, Paul eta Jose Luis Cambridge FCE azterketa aprobatzeagatik. Eta Unai Cambridge Advanced.

**MATRIKULA ZABALDUKO DA**  
IRAILaren 8an

**Deitu Alan / Joe**

943 33 11 08

KALE NAGUSIA 41, 1



**Antziola-Motor**  
Salmenta eta tailler zerbitzua

**Ford Mondeo**

3 aukera ezberdin,  
gusto ezberdinenez:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

Etorri, ikusi eta  
aukeratu.



Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbaterren 10-13

■ ERREMONTA - CASINO KURSAAL TXAPELKETA



## Zeberio IIgarrenak eta Eizagirrek jokatuko dute gaur Ligilako aurreneko partidua

■ Zeberio Ila aterako da faborito, baina, Eizagirre Lizaso kanpoan utzita dator.

ERREMONTEKO buruz-buru-ko Casino Kursaal txapelketak beste pauso bat eman du emozioan eta interesean. Txapelketako hiru pelotari onenek probatuko dute elkar, eta gaur izango da aurreneko partidua, Zeberio Ila eta Eizagirre protagonista direla. Zeberio Ila da gaur egun txapeldunordea

eta bera aterako da faborito, aurreko kanporaketan Bitoria-ak lanak eman bazizkion ere. Eizagirre hiru aldiz izan da txapeldunorde, eta bere sake beldurgarriak etxera bidali zuen Lizaso. Patxi Zeberio elduaindarra adierazi du gogoz dagoela partidua jokatzeko eta uste du gaur irabaztea klabea dela finalean sartzen. Jon Eizagirre zarauztarrak, berriz, esan du konfianza eta ilusioarekin dagoela, eta azaldu du sakearekin saiatuko dela partidua hausten.

Ondoren, Ezkurra-Aizpurua II eta Altuna I-Lizasok emango dute ikuskizuna Galarretan. Jaialdia 16:00etan hasiko da. □



Janácek Laukote txeiarra entzuteko sarrera guziak bukatu ziren. Publikoak gogotik txalotu zituen.


## Pablo Sorozabal Haize Boskoteak agurtuko du gaur Musika Garaikide zikloa, Zabalagan

■ Boskoteak hemengo 6 konpositoreren lanak estrenatuko ditu ■ 20:00etan.

PABLO Sorozabal Haize Boskoteak emango du gaur Musika Garaikide zikloko sei-garren eta azken kontzertua.

Emanaldiak *Gure inguru-ko konpositoreak* du izenburua, eta Francisco Garcia Alvarez, Hilario Extremiana, Je-sus Mari Etxeberria, Juan Karlos Perez, Javier Jacinto, eta Martin Zalba konpositoreen obrak estrenatuko ditu. □

■ PLATER TIRATZEA



Santa Barbaran plater tiratzeko makina pronto jarrita.

## Gipuzkoako Minifoso txapelketa bihar, Santa Barbaran

■ Goiz eta arratsalde jokatuko da, 11:00etatik 13:30etara eta 15:30etatik 18:00etara.

SANTA Barbarako tiro lekuaren Gipuzkoako Minifoso Kopa jokatuko da, Hernani-Klub Txantxangorrik antolatuta. Tiratzaileek 15 plater naranja izango dituzte eta denera, 1.000 euro egongo dira saritan, trofeoez gain.

Txapelketa goiz eta arratsalde jokatuko da. Goizeko 11:00etan hasi eta 15:30etan jaarratuko du. Irabazleak 120 euro eta trofeoa eramango ditu. Kategoria bakotzeko irabazoleak, berriz, 70na euro eta trofeoa. □

JUBILATU ETXEA

## Taberna itxita, abuztuaren 25etik irailaren 2 arte

■ Beraz, abuztuaren 31n ez da 'bailerik' izango.

JUBILATU Etxeak adierazi du Goiz Eguzkiko taberna itxita egongo dela datorren oporragatik. Hori dela eta, datorren igandean, bihar zortzi, ez da dantzariak izango Jubilatu Etxean. □

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

■ FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- Gauetan: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087

IRAGARKI MERKEAK

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuek deitu: 943 55 29 47 - 943 55 46 97

Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 10:00etatik 13:30etara. ☎: 667 019274.

Hernanin ogi banatzailea behar da. ☎: 609 543900 (19:00etatik 20:00etara).



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURERA

ERREMONTA JAI ALAI:

- 1: Uterga - Gaztelu / Juaristi - Olazar
- 2: Casino Kursaal: Zeberio II / Eizagirre
- 3: Ezkurra - Aizpurua II / Altuna I - Lizaso
- 4: Elizalde - J.Etxeberria / Agirresarobe - A.Lekunberri